



Kai Kerexeta, Zipotzetako jai batzordeko kidea, aurtengo jaietako kartela eskutan. **NAGORE GARMENDIA**

Herri bazkaria bueltan, Groseko Zipotzetako ostiralean

Hilaren 18tik 21era egingo dituzte aurten Zipotz jaiak Grosen, eta egitarau zabala prestatu dute; betiko ekintza tradizionalaz gain, lehendik egiten ziren beste batzuk ere ekarriko dituzte auzora.

Nagore Garmendia Artano

Trantsizio urte bat bizi dute Grosekoek aurten, eta inoiz baino gogotsuago aurkeztu dituzte jaiak. Lantaldea indartu dute, belaunaldi berriak sartu dira jai batzordean eta beteranoek ere bertan jarraitzen dute.

Jai batzordean sartu diren gazteak jarduerak antolatzeko gogoarekin daudela aitortu du Kai Kerexeta jai batzordeko kidea: «Blusa tailerrak

antolatzen ari dira, besteak beste, auzoko kuadrilla guztiek beraia izan dezaten», azaldu du. Auzo elkartean josteko makinak eta patroiak gordetzen dituzte, eta horiek baliatuko dituzte kuadrillek, elkarlanean aritu ondoren, dotore janzteko.

Betikoa bueltan

Lehen egiten zituzten jarduerak berreskuratuko dituzte aurten (herri

bazkaria, kasu), uztailaren 18tik 21era, eta betikoak ere ekarriko dituzte auzora: txupinazoa, haur danborrada, elektrotxaranga (iaz berreskuratuko zuten), pintxo lehiaketa... azken hori, ordea, larunbatean soilik izango da aurten.

Herri bazkariaren kasuan, pandemia garaian erabaki zuten egitarautik kentzea, ezarritako segurtasun neurriak zirela medio; hortaz, beste alternatiba batzuk bilatu behar izan zituzten, eta orduan hasi ziren pintxo lehiaketa antolatzen. Aurten, ordea, biak izango dituzte jaietan; bazkaria ostiralean, eta pintxo lehiaketa larunbatean.

Iazko haur danborradak errekor guztiak hautsi zituela adierazi du Kerexetak. Haurrak jaien alde garrantzitsu bat direla aitortu du, eta, beraz, eurentzako jarduerak ere egingo dituzte, beren espazioa izan dezaten. Hala, aurpegi eta kamiseta margo-keta, herri kirolak eta abar izango dituzte jaietan.

Igandeko euskal jaiak ere badira Zipotzetako ezinbesteko bat; igan-

dean ospatuko dituzte, ohi bezala, eta baserritarrez janzteko deialdia egin dute. Gainera, Garagune elkartearen partaidetza nabarmendu nahi izan du Kerexetak; betidanik lagundu izan die elkarteak jaietan, eta aurren, egitarauaren parte ere izango dira. Hamaiketako bat egingo dute eurekin, ostiralean.

Auzotik, auzoarentzat

Jaiak auzoaren parte garrantzitsu bat direla azaldu du Kerexetak; dagoen komunitatea indartzeko aitzakia perfektua. Urte guztian zehar auzoan bizi direnen arteko saretea lortzea, eta jai euskaldun eta parekideak antolatzea da helburua: «Jaiak dira komunitate hori bizirik dagoenaren erakusgarri». Hala ere, komunitate hori hautsi nahi dutela salatu du: «Turistentzako auzo bat egin nahi dute, eta horrek gure komunitateari galera handia eragiten dio». Ilusioa antzematen da auzoan, gogoa, eta, esan duenez, ez da soilik jai batzordearen kontu bat; izan ere, auzoari behar dituen baliabide guztiak eskaintzea da beren lana, ez dena antolatzea. «Auzoak antola ditzala bere jaiak, gu laguntzeko egongo gara».

Jaietan ondo pasatzea izan da beti beren helburua, jaiak sentitzea. Auzoko komertzio eta eragile askok laguntzen dute horretan, eta oso eskertuta dago jai batzordea: «Jaiak auzotik eta auzoarentzat izan daitezela!». ●



Erraldoiak Groseko kaleetatik ibiliko dira aurren ere. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

OSTEGUNA 18

16:00 · Saguesko frontoian

Pala eta pilota finala.

16:30 · Txofre plazan

Kamiseta eta aurpegi margoketa haur, gazte zein helduentzat.

18:30 · Txofre plazan

Traka Matraka taldearen *Matraka Ma Non Troppo* ikuskizuna.

19:00 · Zabaleta kalean

Gartxi DJ-a, Mala Gisssonaren eskutik.

19:00 · Okendo Kultur Etxean

Ereski abesbatzaren emanaldia.

19:30

Pregoa. Ondoren, erraldoi eta buruhandiekin kalejira Txofre plazatik abiatuta.

20:00 · Txofre plazan

Sahieski errea.

Errehabilitazioak

- Fatxadan isolamenduak
- Teilatu konponketak
- Zaharberritzeak
- Teilatuak

JOBILAN

GIPUZKOAN, EUSKAL HERRIAN ETA INGURUKO PROBINTZIETAN.

jobilan.eus 620706936

LAIA
ABOKATUAK

Zorionak jaiak auzotik eta auzoarentzat aurrera ateratzen zabiltzaten guztioi.

Gora Zipotz jaiak !

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

20:30 · Nafarroa Beherea plazan

Erraldoiak bukatutakoan, txokolate jana.

21:00 · Txofre plazan

Marina Landaren kontzertua.

21:00 · Txofre plazan

Kontzertuak: TTB DJ-a, Agoteak, Revolutionary Brothers, Serena eta King Konsul & Lua Matheus.

OSTIRALA 19**10:30 · Garagune-Usandizagaren egoitzan**

Hamaiketakoa, Garaguneren eskutik.

12:00 · Nafarroa Beherea plazatik

Erraldoi eta buruhandiekin kalejira.

13:00 · Katalunia plazatik

Trikipoteoa auzoan zehar.

14:30 · Katalunia plazan

Norberak ekarritako bazkaria.

15:30 · Katalunia plazan

Bingo musikatua.

16:00 · Saguesko frontoian

Pala eta pilota finala.

16:30 · Katalunia plazan

Kuadrillen arteko jolasak.

17:30 · Txofre plazatik

Haur danborrada auzoko kaleetan zehar.

**18:00 · Katalunia plazatik**

Hamarru elektrotxaranga auzoko kaleetan zehar.

18:00 · Txofre plazanGrafiti erakustaldia.
Podcast musikatua eta hainbat grafiti egile.
Break Ikuskizuna eta auzotar guztientzako tailerra.**19:00 · Okendo Kultur Etxean**

Eresmin abesbatzaren kontzertua.

19:30 · Txofre plazan

Haurren afaria.

19:30 · Mendi Berri tabernan

Kontzertua: Radio Covers.

20:00 · Txofre plazanSardina jana.
Mikeltxi DJ-a.**21:00 · Txofre plazan**

Zezensuzkoa.

22:00 · Katalunia plazan

Kontzertuak: Ithaka, Zilibito, Kalipotxo eta Anetxu DJ-a.

LARUNBATA 20**09:00 etatik aurrera · Manteoko frontoian**

Haurrentzako futbito txapelketa.

10:00-13:00 · Zurriola hondartzanSurf herri txapelketa
(9 urtetik aurrera).**11:00 · Txofre plazan**

Gaztetxoentzat xakea.

11:00 · Katalunia plazan

Haurrentzako jolasak.

12:00-15:30

Tabernen arteko pintxo lehiaketa.

12:00 · Manteo kiroldegian

Futbito txapelketaren finala.

12:00 · Nafarroa Beherea plazatik

Txaranga auzoko kaleetan zehar.

13:30 · Saguesen

Paella jana, Groseko Surf Indarraren eskutik.

Euskaraz hitz egiten badakizu?

Euskara ikastaroak

 **hitzez**
euskaltegia

Ondo pasa
Zipotz
jaietan!

14:30 · Katalunia plazan

Herri bazkaria.

16:30 · Saguesen

Mini-Disko.

16:30 · Gorosti tabernan

Mus txapelketa.

17:00 · Nafarroa Beherea plazatik

Erraldoi eta buruhandiekin kalejira auzoko kaleetan zehar.

18:00 · Saguesen

Txaranga.

18:00 · Saguesko frontoian

Errima txapelketa eta Showcases, Urban Hamahiruren eskutik.

18:00 · Karkizano kalean

Karate erakustaldia, Karate-do Saito eskolaren eskutik.

18:30 · Nafarroa Beherea plazatik

Helduen danborrada auzoko kaleetan zehar.

19:00 · Okendo Kultur Etxean

MB gazte abesbatzaren emanaldia.

19:00 · Zabaleta kalean

DJ-ak.

19:30 · Nafarroa Beherea plazan

Txokolate jana eta erraldoiak.

20:00 · Txofre plazan

Sahieski errea.

21:00 · Saguesen

Kontzertuak.

21:00 · Txofre plazan

Andoni Oilokiegiren emanaldia.

22:00 · Katalunia plazan

Kontzertuak: Astelehen Goizak, Rodeo, Arrixku eta Iruani DJ-a.

IGANDEA 21**Euskal jaia. Artisau azoka eta talogileak San Frantzisko kalean****10:00etatik aurrera · Manteoko frontoian**

Haurrentzako futbito txapelketako finalak.

11:00 · Katalunia plazan

Elkarte eta kuadrillen arteko marmitako lehiaketa, Marruma elkartearen eskutik.

11:30 · Katalunia plazanTrikitilariak.
Haurrentzako herri kirolak.**12:00 · Katalunia plazan**

Sagardo dastaketa.

12:30 · Katalunia plazanBertso saioa: Aroa Arrizubieta, Nerea Elustondo, Jon Martin, Iñaki Apalategi.
Tortilla lehiaketa.**14:30 · Katalunia plazan**

Kantu bazkaria.

**17:00 · Katalunia plazatik**

Kuxkuxtu txaranga kantalaria.

18:00 · Katalunia plazanAmeztu: *ORGANIK* emanaldia.**19:00 · Katalunia plazan**

Euskal dantza gidatuak.

20:00 · Katalunia plazan

Laket Erromeria.

21:15 · Katalunia plazan

Zezensuzkoa.

00:00

Jaien amaiera.

**Ondo pasa Zipotz jaietan!****basmodec****ZURE PINTURA DENDA****BENTA BERRI**Jose Goikoa Z/G
943 15 55 79**GROS**Secundino Esnaola, 19
943 28 26 11**AMARA**Eustasio Amilibia, 11
943 45 67 04**BEASAIN**Oriamendi, 21
943 88 08 63**HERNANI**Akarregi Poligonoa, Pab.3A
943 52 16 50